

## Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

57. zenbakia

Data 2004-03-25

5867 orria

---

### 7 UDAL ADMINISTRAZIOA

#### DONOSTIAKO UDALA

**San Martingo Merkatu Berriaren Oinarrizko Erregelamendua aldatzea. Behin betiko onespena.**

---

### DONOSTIAKO UDALA

#### Mugikortasun Zuzendaritza

*San Martingo azoka berriaren oinarrizko araudia aldatzea. Behin betiko onarpena.*

Donostiako Udalak, 2004ko otsailaren 24an egin zuen osoko bilkuran, behin betiko onartzea erabaki zuen San Martingo azoka berriaren oinarrizko araudia, 2003ko azaroaren 25ean izandako bilkuran hasierako onarpena jaso zuena.

Erabaki hau behin betikoa da, eta buru ematen dio administrazioko bideari. Ados egon ezean, Euskadiko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailera jo, Bilbora, eta administrazioarekiko auzia jartzeko eskubidea dago, bi hilabete baino lehen.

Iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/785 Legearen 70.2 artikulua agindutakoa aintzakotzat hartu eta hona hemen, argitara aterata, aldaketaren testu osoa:

«35.6 artikulua.- Plazak emateko orduan izango den hurrenkera:

«A» *Taldea:*

Betiko Azokako dendariak. (Plaza bat saltokiko).

«B» *Taldea:*

Zerrendako kaleek mugaturiko aldeko herritarrak (I. aldea):

(Ibilgailu bat alde horretan erroldaturiko biztanleek benetan erabilitako etxebizitza bakoitzeko).

—Askatasun hiribidea, bakoitiak.

—Foruen pasealekua.

—San Martin.

—Artzain Onaren plaza, 2-10.

—San Bartolome.

—Vinuesa Aitaren plaza.

—Kontxa pasealekua.

San Bartolome kaleka eta Aldapeta kaleko 3. eta 5. atariak ere alde horren barruan daude.

«C» *Taldea*:

Zerrendako kaleak muga dituen aldeko merkatariak (III. aldea):

(Ibilgailu bat alde horretako denda bakoitzeko).

—Askatasun hiribidea, bakoitiak.

—Foruen pasealekua.

—San Martin.

—Easo

«D» *Taldea*:

Zerrendako kaleek mugaturiko aldeko biztanleak (II. aldea):

(Ibilgailu bat alde horretan erroldaturiko biztanleek benetan erabilitako etxebizitza bakoitzeko).

Alde batetik:

—Askatasun hiribidea, bikoitiak.

—Argentinako Errepublika.

—Salamanca pasealekua.

—Bulebarra.

—Hernani kalea.

—Andia kalea.

—Miramar kalea.

—Parte Zaharra

Bestetik:

—Easo kalea: 33-83, 22-74 atariak (Easo kaleko beste atariak I. aldekoak dira).

—Mendeurrenaren plaza.

—Gernikako Arbolaren pasealekua.

—San Martin kalea (San Martin kalea I. aldekoa da).

—Artzain Onaren plaza (Artzain Onaren plazako 2-10 bitarteko atariak I. aldekoak dira).

—San Bartolome kalea (San Bartolome kalea I. aldekoa da).

«E» Taldea:

Donostiako udalerriko gainerako biztanleak. Horiei behin-behingoza emango zaie (prekarioan), lehentasuneko taldeetako (I, II, III eta IV) eskatzailearen bat agertu arte, alegia. Ondorioz, prekarioan hartzen duenak nahitaez utzi beharko dio hartutako tokia eskatzaile berriari.

(Ibilgailu bat alde horietan erroldaturiko biztanleek benetan erabilitako etxebizitza bakoitzeko)».

Donostia, 2004ko martxoaren 11.—Mugikortasun eta Bide Publikoetako zinegotzi eskuordeduna.

(235) (2567)